

Nahia Mujika Arratibel

A maila • 1 aipamena

Aupa guztioi, ni Nahia Mujika nauzue. Beasaindarra naiz eta herrian bertan dagoen Txindoki Bigarren Hezkuntzako institutuan nabil ikasketak egiten.

Idaztea txiki-txikitatik gustatzen zaidan eta egiten dudan gauza bat da, marraztea, dantzatzea, abestea eta beste hainbat zaletasun bezala. Horrexegatik pozten nau beste behin lehiaketa honetan sari bat jaso izanak. Idazgai gustukoena fikzio historikoa dudanez, berriro ere gerran oinarritutako historio bat dakarkizuet gaurkoan. Besterik gabe, espero dut zuen gustukoa izatea.



LARROSA ZURIA

Nire hilobiko larrosa kenduaz batera biluztu nuen hura, eta, han ziren klabelin ustelak zanpatu ostean, bere lekua eman nien larrosa zuriei, azal zuriko arima garden baten alboan.

Atarian ez zegoen inortxo ere. Egia esatekotan, tripak nahasi zitzaizkidala onartu behar dut. Dashak ez ninduen ate nagusitik sartzen ikusiko, ez zen nigana korrika etorriko, eta ez zuen nire gainera pozez zoratzen saltorik egingo, elurretan hotzez izozten hainbestetan amestu nuen bezala. Axolagabekeriak. Paradisuko atea muturretan izanda, zeren kexu izateko eskubidea nuen bada? Ezjakin koitadu halakoa, ni!

Adorez bilduta eta pausu azkar batez baliatuta ateraino iritsi bezain bizkor eman nizkion kolpekada pare bat nire etxe kutuneko ateari. Ai, nire aberria! Hainbeste faltan izan nuena! Ez, ez! Jaioterriko sustraiak berriro ere miresteko denbora dezente banuen gero. Momentu hartan niretzako garratzia zuten bakarrak atera hurbiltzen ari zirenen pauso arin haiek ziren. Berriro diot, koitadua, ni!

Pauso hots bat, asperen bat; beste pauso bat, asperen sakonago bat; beste bat, irribarre zabala; beste bat, hortzak ageri-agerian... eta hortxe hartu nuen momentura arte hartu nuen golperik mingarriena. Hortxe eman zidan zoriak, inoiz izan zezakeen jokaldirik zitalena.

Lur zikin eta elurtsu haietan topatzen nintzen, bizitzaren amildegi hertzean, heriotza zen zulo amaigabera erortzeko zorian. Zorian, baina ez prest; etsaien zain izozten nintzen bitartean. Dasha sumatzen nuen nire ondoan, inoiz baino hotz bortitzagoa sentitu arren, nire bihotzean gero eta txikiagoa zen beroa sumatzen nuen: nire maitalea berriro besarkatzeko esperantza, segunduro murrizten ari zena. Maitasunaren suak salbatu ninduen orduan. Ez! Amore ematea ez zen aukera bat. Nola barkatu nire buruari etxera itzultzeko azkeneraino borrokatu ez izana?

Ingurura begiratu eta zera ikusten nuen: heriotza. Gorpu hutsak. Baina ez gorpu hutsak soilik. Haiekin batera, jada, ez zeuden arima suntsituak, beltzez jantziko ziren alargun burumakurrak,

aitaren falta betiko izango zuten haurrak, arerioak madarikatuko zituzten amak... arima suntsituak. Begietan izozten zitzaizkidan guztiak. Dasha beltzez jantzia imajinatzeak sortzen zizkidan malkoak, nahiz eta munduko alargunik ederrena zirudien.

- AAAAAA!- ohiu egin nuen azkenean, amorrua barnean gehiago jasan ezin nuenean, negar malkotan erori baino lehen. Hura ezin zen horrela amaitu. Heriotzak harrapatuak zituen nire inguruko gorpuei erreparatzen nien, eta, orduan..., orduan izan nuen buruan nire salbazioa.

Nire begietan zegoen emakumeari erreparatzen nion. Non zegoen Dasha? Non zegoen bere azal zuri eta leuna? Non bere begi txikiak, edertasun handiena barnean gordetzen zuten haiek? Eta, bere ezpainak? Hainbeste aldiz erregutzen nizkionak? Non zegoen nire ametssetako emakumea, eta nor zen hura?

- Egunon jauna. Zerbaitetan lagun zaitzaket?- emakume zahar haren hitzek bat-batean harrapatu ninduten. Non zen Dasha?!

- Bai. E, zera. Etxeko jabeak hemen al dira?

- Etxeko jabeak?- barre txikia-. Etxe honen jaun eta jabe nire senarra dela badira jada bi urte eta erdi inguru.

Ulertezintasuna, egoeraren kontrolak eskuetatik ihes egiten zidan hatz puntetan irrist egitera arte, betiko joanez. Esperantza eta pazientzia galtzen hasia nintzen. Non demontre zegoen Dasha?

- Bisitaren bat egitera etorri al zara lehen hemen bizi zen familiari?

- Bai. Bai, bisita bat egitera etorri naiz honaino, baina, badirudi alferrikakoa izan dela bidaia.

- Ai, mutiko koitadua! Zatoz, zatoz barrura, belar salda bero bat eskaintzea gutxienekoa litzateke zorigaitzoko gorabehera honen ostean.

- Mila esker anderea, baina, egia esan presa apur batekin nabil. Hemen topatu ez ditutanak topatzeko beharra dut, eta...

- Ez zara ba izango, hemen bizi zirenen senide?

Emakume haren harridurak pentsarazi egin zidan, zer pentsatua eman baino gehiago, beldurra eragin zidan. Ez nuen susmo onik, zorigaitzik latzena entzun behar nuela nabari nuen: etsipen sentipena barnean.

- Nola? Ez. Zera, nik, lagunak ditut hauek. Bai, zera, gaztetako ezagunak.

- Ai ene! Eskerrak! Biak hil ziren orain dela pare bat urte. Badakizu, dirudienez gizona "gorri" zikin bat zen. Barkaizkidazu hitz hauek, baina bataila-eremuan zirt- zart akabatu omen zuten gureek. Eta, noski, emazteari berria iristean, depresioak jota eraman zuen honek emakume gaixoa.

"Gorri" zikinarena esan zuenean sortu zitzaidan amorrua ez zen inondik ere han bizi zen familia hila zela esan zuenean, barnean zabaldu zitzaidan zorigaitzaren parekoa.

Gertuen neukan arerioaren gorpura iristea lortu nuenean ohartu nintzen ez neukala ideiarik nola demonio lortuko nuen bere arropa janzteia nirea eranzterakoan hotzez hil gabe. Nola edo hala lortu nuen, baina. ez nuen nire arropa erantzi berea soinean izan arte, eta nirea ere ez nuen guztiz erantzi amaieran. Gizon haren gorpua kantzotzilotan eta nire berokiarekin utzi

nuen soinean, bota eta guzti. Nire berokiak bularrean zuen poltsikoan, nire soldadu fitxa ageri zen, nor nintzen, zer adin nuen eta gorrietako bat nintzela adierazten zuena; besterik ez. Eskuak ikuskatu nizkion: ezkon eraztun bat. Segituan kendu nion eta jantzi nuen. Une batez bihozgabe krudel sentitu nintzen egin nuenagatik; gorpu haren emazte gaixo hari iritsiko zitzaion berriak bere senarra bizirik zegoela adieraziko zuen, bere itxaropenak tontorrean mantenduz. Eta hori, nik bakarrik banekien ere, hori ez zen horrela. Baina gizon hura hila zegoen eta heriotza da munduan konponbiderik ez duen bakarra. Nahiz eta ezezagun baten sentimenduekin inolako gupidarik gabe jolasean ari nintzen, ez nuen beste aukerarik; hala ezean, ene Dasha izango zen senarra galduko zuen hurrena. Eta hori, nahiz eta berekoia izan, nire sentimenduekin jolasean aritzea ere bazen.

Nire fusila ahal bezala hartu, eta gizon hari kolpe batez sudurra ahutsi nion. Kolpe bat, gero beste bat, eta beste bat, eta beste bat, eta horrela aurpegi hura guztiz desitsuratu arte. Hezurak kraskatzen entzun nitzakeen. Nazkagarria zen benetan, nazkagarria eta destasegina. Ezker eskua zauritu nuen labana batez, eta odol jariora gizonaren aurpegian erortzen utzi nuen. Gorpu hari egin niona, basapiztia ankerrenaren ekintzen parekoa zen. Jainkoari erregutu nion, Dasha ez zezala inolaz ere hura ikusi ni nintzen ustearekin. Ez nion altuegi erregutu dirudienez.

Noraezean nenbilen, burua guztiz galduta. Dasha hila zen. Ni ere hila nintzen. Guztiz galduta nintzen. Une hartan ezertxo ere ulertzeko gaitasunik ez nuen: nolatan izango zen Dasha hila? Ezinezkoa zen hura. Ezin zatekeen posible izan, nirea helburu bakarra zen: etxera itzuli eta dena betikoa izateko desira. Dena atzean uztekoa behingoz, eta nire emaztearekin nire etxera itzultzekoa. Gaztea nintzen baina banekien zer zen maitasuna, banekien nor zen nire seme-alabentzako amatzat nahi nuen emakumea, banekien noren ondoan eman nahi nuen nire azken hatsa, eta beste behin ere ez nengoen prest amore emateko. Hura ezinezkoa zen, Dasha ez zegoen hila, ni ez nengoen hila denek hala uste bazuten ere. Bihozkada txiki bat oraindik banuen, eta hura askatzeko inongo asmorik ez.

Hilerrira iritsi bezain laster topatu nuen. Nire hilobiaren ondoan zegoen, lasai-lasai, bake-bakean. Iraganean bizirik mantendu ninduen bihozkada nimiño hori milaka zati txikitik apurtu zitzaidan une hartan. Nire hilobiaren ondoan zegoen nire emaztearena. Nire hizoztutako gorpu birrindua ikusteak eman zion amiera bere bizitzari.

- Ez nintzen ni, maitea, ez nintzen ni- harri hotza sentitzeak nolabait entzuten ninduela sentiarazten zidan. Baina ez zen hala. Nire emaztea hil nuen. Bataila-eremuan nire arerioak eta kideak izoztu ziren bezala izoztu nuen bere bihotza nire gorpu hura erakutsi nionean. Nire bizirauteko itxaropen bakarrak hil zuen bera, eta harez geroztik ez da igaro egun bat nire emaztearen heriotzaren errudun sentitu ez naizena. Bere azal zuria ukitzen nuen azkeneko aldia azkena zela jakin izan banu, ez nukeen sekula une hori amai zedin utziko.

Bere hilobian zeuden klabelinak ez zetozen bat berarekin. Lore arrosa erdi ustel batzuek ez zioten nire bizizako maitasunari justiziarik egiten inondik inora ere. Dasha ez zen klabelin ustel parean, larrosa zuri izoztu bat baizik, nire erruz.

Nire hilobiko larrosa kenduaz batera biluztu nuen hura, eta, han ziren klabelin ustelak zanpatu ostean, bere lekua eman nien larrosa zuriei, azal zuriko arima garden baten alboan.